

## BEZEROEKIKO HARREMANA

Berriro ere bezeroekin jarraituz, hainbat motatakoa izan daiteke bezero eta gure arteko harremanean egon daitezken **motibazioak** eta gainera, motibazio horrek momentu berean edota une desberdinetan jazotzekoak izan daitezke. Guk izango ditugun motibazioak aurretik aipatutako bi motatakoak izango dira, hau da, bai **aldi berekoak zein desberdinekoak**. Gure motibazioak esaterako, bezero berriak lortzea, ditugun ikasle zein irakasleak eustea eta azkenik gure zerbitzua aurrera eramateko, beharra duten ikasleenganaino iristea izango dira. Guk bezeroekin lortu nahi dugun harremana “**online**” bidezkoa izango den arren, gure artean **harreman estua** izatea eskertuko genuke, azken finean, egunero edo astean bitan beraiekin komunikatu beharra dugulako. Harreman estua esaterakoan zera da esan nahi duguna; konfiantza izatea, zerbait beraien gustukoa ez bada esatea edo proposamen berriren bat badute esatea.

Bestalde **harremana** aurrez aurrekoa, web-aplikazioen bidezkoa edo beste hainbat motatakoa izan daiteke. Gure kasuan, bezeroekiko harremana “online” bidezkoa izango denez ez da aurrez aurrekoa izango, **webgune baten** bidezkoa edo **bideo dei** bidezkoa izango da. Webgune baten bidezkoa izateaz gain, harremanean eskainiko duguna, laguntza izango da. Zerbitzu honetan **laguntza pertsonala** ematea izango dugu helburutzat, beraz, harremana zuzena izango da eta irakasle batek bideo dei baten bitartez laguntza pertsonala eskainiko dio ikasleari. **Komunikazioa bakarkakoa** izango da, hau da, eskainiko dugun laguntza “coaching” saio bat bezalakoa izango da, bakarrik guk eskainiko dugun laguntza ikasketen ingurukoa izango dela. Hori dela eta, gure saioak bakarkakoak direnez pertsonala izango da eta gainera bakoitzari behar duen laguntza emango zaio, bezeroak eskatutakoa eskainiko da saio bakoitzean, adibidez ikasteko orduak planifikatzea.

